

Helduen Literatura

Pendrive
Arrate Mardaras.
Susa, 2013



Idea ona, baina...

PENDRIVE izeneko narrazio sorta edo ariketa literarioarekin estreinatu da Arrate Mardaras (Abadiño 1960).

Demagun editore batek uesebe bat aurkitzen duela bulegoko mahai gainean, eta ez daki nondik ezta nola heldu den ere. Jabe hipotetikoak eduki zitzakeen proiektu desberdinen piezak aprobetxatuz, editore narratzaileak bere edizio pertsonala osatuko du barnean dagoen materialarekin. Emaizta: *pendrive* galdu bati buruzko hipotesiak, Sinda izeneko emakume bati buruzko pasarteak eta ohar linguistikoez, nahiz eta ez beti, lagunduta datozen zenbait narrazio solteen *kopiatu/itsatsi* eran egindako muntaia da irakurleari eskaintzen zaiona. Edo inpresio hori izan dut nik behintzat.

Egia aitortzearen liburu honek deseroso sentiarazi nau hainbat momentutan. Irakurtzen ari nintzela zalantzan aritu bainaiz ez ote zen izango nire gaitasun ahulagatik, barne egituraren kohesio falta zela eta, edo liburuak berak duen konplexutasunagatik, pasarte ugari behin baino gehiagotan irakurri behar izan ditudala, bidean zerbait ahaztu dudarenentsazioa neukalako. Atalen arteko batasuna aurkitzen saiatu naiz etengabe, bata besteari egiten dion mesedea aurkitu nahi izan dut, collageak zentzua har dezan, baina, nire zoritxarrrako, arrakastarik ez.

Azkenik, existitzen ez den zerbaiten bila nenbilerla ondorioztaturik izenburuari erreparatu diot: *Pendrive*. Ez al da hura kohesiorik gabeko fitxategiak, piezak, gorde eta mantentzeko instrumentu bat? Ez al du horrek ere liburuarekin zerikusirik? Ez al dira biak hitzen memoriarako gordailuak?

Zentzu horretan originala iruditu zait Literatura kontsideratzeko proposamen berritzaile hau, baina tratatzeko modua iruditzen zait liburuaren puntu ahuletako bat. Halako instrumentu baten edukia nola edo hala papereratu izana da, ene ustez, ideia jeniala birrindu duena. Are gehiago, nik esango nuke, publikoaren interesetatik at dagoela.

Gustuak eta irakurle mailak alde batera utzita, gizakiari istorioak entzun zein irakurtzea gustatzen zaio. Eta paperezko pendrive honetan sei narrazio aurkitzen ditugu beste testuekin erlaziorik ez daukatena. Historiako garai eta testuinguru oso desberdinetan gertatutako maitasun istorioak dira, non, tronpatzen ez banaiz, gehienek duten gerra eszenatoki. Narrazio horietara mugatu izan balitz baliteke bestelako emaitza eduki izana, baina kasu hipotetikoan mintzo gara. Orainaldian esatearren, lehen ariketa literarioa da Arrate Mardarasen *Pendrive*. ■

Saioa Ruiz Gonzalez








Nor nahi zoazela. Nor nahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkora duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia